

# **Herriko Urtekaria**

---

**2020**



**ORTZAIZE**

# Aurkibidea

Auzapezaren hitza	2
Komunikazioa	3
Lan taldeen antolaketa / Ordezkarriak	4
Sortzeak / Ezkontzak / Heriotzak	5
Aurrekondua	6
Euskara eta euskaraldia	11
Laborantxa / Mendi bideak	12
Eliza / Ondarea	13
Helbideratzea	16
Urbanismoa	17
Lotizamendua	19
Garapen iraunkorra	21
Apartamenduak	22
Herriko Zerbitzu Soziala	23
Artxibo / Liburutegi / Ludoteka	24
Eskolak	26
Elkartea	31
Nahas mahas	50

# Auzapezaren hitza

Zinez urte berezia bizi izan dugu 2020a !

Martxoaren 15ean Ortzaiztarrek aldaketaren hautua egin bazuten ere, ez gira maiatzaren 23an baizik jarri Herriko etxeen.

Koronabirusa dela medio, eguneroko bizian, denek, nahi ala ez, egoerari egokitu behar izan dugu.

Eskolek, jantegiek eta haurzaindegiek protokoloer jarraiki behar izan dute. Aldiz, ludoteka hetsirik egon da.

Herriko langile guziak eskertzen ditut denboraldi hortan erakutsi duten nahikeriaz eta borondateaz.

Eskola publikoari ere lagunzaile bat denbora osoz ezartzea erabaki dugu, haur sartze haundi bati erantzuteko.

Bestalde gure sustengu osoa erakutsi diegu Baionan, manifestaldi batetan parte hartuz, euskararen lekua segurtatzeko beren erakaskuntzan.

Gure aldetik, auzo guzietan erreferenteak plantan eman ditugu biztanleak Herriko etxetik hurbilago senditzeko gisan.

Lehen berripaperaren ondotik, ari gira orain webgune baten plantan ezartzen eremaiten dugun lanaren berri ukantzen dezazuen gardentasun osoan.

Martxotik hunat baliatu gira ere, ahal bezainbat jenderekin harremanetan sartzeko, gure herriaren aipatzeko eta ezagutarazteko, gure proiektu desberdinengauzatzen laguntzeko eta diruztatzeko.

Mendiko bideen hobetzea eta elizako obrak abiatu ditugu.

Euskal Herriko elkargoari utzi diogu uraren kudeantza.

« Xerrenda », herriko lotizamendian ere etxe lur zenbait atxikiak izan dira, laster behar ginuzkelarik ikusi lehen eraikuntzak.

Azkenik, Kontseilu guziaren izenean agiantza hoherenak nahi dauzkizuet helarazi, urte berri on bat desiratuz deneri osagarria lagun.

# Komunikazioa

Komunikazio arloa landuko duen lan talde bat sortzea erabaki dugu. Zuekin usuago eta hobeki elgar trukatzea da gure helburu nagusia. Lan hori eramanen dugu medio desberdin batzuen bidez ; hala nola berripaperak, herriko urtekaria, bilkurak, konferentziak, auzoko ordezkariak, webgunea...

## Elebitasunaren hautua

Herriko komunikazioan euskarari merezi duen tokiaren berriz emaitea deliberatu dugu. Hortarako, gure dokumentu guziak elebidunak izanen dira.

## Urtekaria eta berripaperak

Urtarrileko urtekariaz gain, berripaperak igorri nahi dauzkitzuegu apirilean, uztailean eta urrian. Urrian erabili dugun itxura atxiki nahi ginuke. Horien bidez gure proiektu edo herriko gertakarien berri ukanten duzue.

## Webgunea

Gaur egungo munduari egokitzen, webgune baten sortzea erabaki dugu. Ortzaizeri buruzko berriak atxemaiteko parada ukanten duzue. Dokumentu ofizialak horatxemaiten ahalko dituzue, Herriko etxera joan gabe. Eraikitzen ari giren webgunearen sorkuntza Donapaleun den Bixoko enpresari emana izan zako. Udaberri hantan aurkezten ahalko dautzuegu araiz.

## Logoa

Ildo berean grafista den Ximun Iñarra Ortzaiztarri logo berri baten sortzea galdegin dakogu. Baliajide guzietan agertuko den irudi modernoago bat proposatu daku. Hori Herriko etxeko komunikazioan erabilia izanen da bainan ez du Ortzaizeko armaría ordezkatuko.

Azkenik, jakinarazten dautzuegu hilabeteko lehen asteartetan herriko kontseiluan biltzen girela eta bilkurak herritar guzieri idekiak direla.

# Lan taldeen antolaketa / Ordezkariak

## Auzoen ordezkariak

- AHAIZE : FRANTXOA / RAMUNTXO
- AHAIZE MENDI : XANTXO / ELENA
- ANTXIBAZTER : FRANTXOA / ELORRI
- APALATS ORDOKI : ELORRI / JEF
- APAL ERREKA : INAKI / JEAN MARC
- BELEZTEGI: XANTXO / ELENA
- GAHARDU : JEAN CLAUDE / INAKI / JEAN MARC
- HORTZA : ODILE / ANTON / CLAUDINE
- IRAORDOKI : INAKI / ANTON
- IRIBERRI : RAMUNTXO / ELODIE
- IRIGOIZETA : PEIO / CORINNE
- OIHAN HAUNDI: XANTXO / ELENA
- UGARZAN : ELODIE / CORINNE
- UHAITZ ERREKA: XANTXO / ELENA
- XERRENDA : JEAN CLAUDE / CLAUDINE
- XORROAN BIXKARRA PEIO / ODILE
- ZUBIALDE : JEF / ELORRI

# Sortzeak / Ezkontzak / Heriotzak

## Sortzeak :

- BILLAudeau Ethan, Gilbert 01/14
- BUROSSE Lilou 01/23
- ANSOLABEHÈRE Bettan 01/ 30
- FOURCADE Thiago, Julien, Philippe 03/ 17
- LEKUMBERRY Luixa 06/ 08
- LAHUT PARMIER Unai 07/ 06
- ALZURI Oier 07/22
- JORAJURIA Allande 07/ 28
- MARTINON Titouan 11/ 23
- EL TONY Sasha 12/07
- BIZKAI AGUERRE Ekhi 12/17
- PINGUET DINDART Unai 26/12

## Ezkontzak :

- GAILLARDET Rémi et LANDABOURRE Mañuela 09/12
- BOURE Kévin et RHEW Hyun-Jin 11/14

## Heriotzak :

- DUTARET veuve PASCAL Ambroisine, Elisabeth 02/ 26
- IRIGOYEN André 06/27
- LEROY Eugène 06/12
- LARRALDE Joseph 08/09
- ALDAVE Christian, Gratien 10/09
- DE SAINT VIANCE épouse DE SURY D'ASPREMONT Brigitte, Marie, Jeanne 10/17
- CURUTCHAGUE Marcel, Dominique 11/30
- HARRONYO GOYENETCHE Ernestine, Jeanne 12/14

# Aurrekondua

Funtzimanendu gastuak :

2020ko aurrekontuaren aurkezpenerako elementu zenbait :

Zorrak :


2020an pagatuak: (kapitala + interesak)

Zor zen kapitala 2019/12/31n : 442 142 €

Fiskalitatea :

ZERGAK	Herriko tasak 2019	Herriko tasak 2020	Diru-sartzeak
Eraikiaren lur-zerga	%16.85	%16.85	140 361€
Eraikia ez denaren lur-zerga	%26.67	%26.67	16 135€


Bizitegi zerga ordaina : 163 856€




Karga orokorrak	602 016€
Langileria kargak	271 300€
Egunerokotasuneko beste kargak	245 200€
Finantza karguak	7 000€
Ez-ohizko kargak	12 000€
FNGIR berriz isurtzea	13 000€
Ez-ustezko kargak	30 000€
Inbertsio sekziora buruzko transferentzia	736 010€

**OROTARA 1 919 526€**

## Funtzionamendu diru-sartzeak :



## Inbertsio gastuak :



● Zerbitzuen emaitza   ● Zergak   ● Diru-laguntzak   ● Eguneroako kudeaketako eta ez-ohizko beste diru sartzeak  
● Langileriako kargen diru-itzultzea   ● Aitzineko funtzionamenduaren soberakina

● Bideak   ● Elizako teilatuaren arraberritza   ● 2019/12/13ko euriteen konponketak   ● Artzain bideen segurtatzea   ● Florentza apartamenduaren arraberritza  
● Beste (Herriko bastimendua, helbideratzeko taulak, urburuetarateko lurren erostea, internet gunea, informatika materiala, telefonía, eskolako taula numerikoa, bermea)  
● Maileguen kapitalaren itzultzea   ● Aitzineko inbertsioko ziloa   ● Ez-ustezen kargak


Zerbitzuen emaitza	80 000€
Zergak	429 694€
Diru-laguntzak	279 512€
Eguneroako kudeaketako eta ez-ohizko beste diru sartzeak	85 000€
Langileriako kargen diru-itzultzea	4 262€
Aitzineko funtzionamenduaren soberakina	59 000€
	982 058€

**OROTARA** **1 919 526€**

Bideak	195 000€
Herriko bastimendua	30 000€
Elizako teilatuaren arraberritza	550 000€
2019/12/13ko euriteen konponketak	65 514€
Artzain bideen segurtatzea	239 260€
Helbideratzeko taulak	25 000€
Urburuetarateko lurren erostea	15 000€
Florentza apartamenduaren arraberritza	80 000€
Internet gunea	10 000€
Informatika materiala	2 000€
Telefonia	2 000€
Eskolako taula numerikoa	6 438€
Maileguen kapitalaren itzultzea	63 100€
Aitzineko inbertsioko ziloa	19 577€
Bermea	2 000€
Ez-ustezen kargak	50 000€

**OROTARA** **1 354 889€**

## Inbertsioen diru-sartzeak :



● Bideetarako diru-laguntza    ● Elizako teilituaren berritzeko diru-laguntza    ● Artzain bideen segurtatzeko diru-laguntza  
● Beste (antolaketa zerga, FCTVA, bermea, autofinantzamendua)    ● Funtzionamendu sekzioaren transferentzia  
● Lotizamendu eta hilerra buxeten abantzuaren itzultzea

Bideetarako diru-laguntza

Elizako teilituaren berritzeko diru-laguntza

Artzain bideen segurtatzeko diru-laguntza

Antolaketa zerga

FCTVA

Bermea

Autofinantzamendua

Funtzionamendu sekzioaren transferentzia

Lotizamendu eta hilerra buxeten abantzuaren itzultzea

69 170€

152 000€

114 638€

17 687€

7 656€

2 000€

59 361€

739 010€

193 376€

**OROTARA**

**1 354 889€**

# Euskara eta euskaraldia

Joan den azaroaren 20tik abenduaren 4ra iragan den Euskaraldian parte hartu du Herriko etxeak. Hau da euskararen erabilpenaren sustatzeko hamabostaldi bat. Herriko etxea bai eta ere posta agentzia “arigune” izan dira denbora horretan, erran nahi baitu leku horietan euskaraz egiten ahal dela. Gainera, kontseilariek ere parte hartu dute ekitaldi horretan bilkurak ahal bezainbat euskaraz eramanez.

Herriaren helburua da euskaralditik haratago ere euskararen erabilpenaren segurtatzea bere barne funtzionamenduan bainan ere herrian orokorki. Euskarazko iniziatiabak bereziki lagunten ditu, hizkuntza horrek bere lekua ukantzen dezan herriko bizian egunerokoan.



# Laborantxa / Mendi bideak

Herriko laborantxari buruzko diagnostika zehatz bat eginen da aurten, Euskal Herriko Laborantxa Ganbararen laguntzarekin. Importanta agertu zauku egungo argazki baten egitea, pundu azkar eta ahulen identifikatzeko eta laborarien beharren agerrazteko. Diagnostika hau lan tresna zehatza izanen da eta lan oinarria izanen da eramanen diren proiekuentzat, bereziki transmizioa, lurra, etxebizitza eta mendiaren erabilpenaren inguruan.

Horrezgain gogoeta bat eraman nahi ginuke herriko mendien kudeaketa arrapentsatzeko, bi galdera nagusiri erantzun beharko dugularik : *Zer nolako mendia nahi dugu? Zer nolako egitura egokia litaike Ortzaizeko mendien animatzeko eta kudeatzeko?*

Talde bat osatu nahi ginuke gogoeta hunen eramaiteko. Lehen bilkura negu huntan abiatuko dugu, beraz gure mendiaz interesa baldin baduzu eterri parte hartzerat !

CLE (Commission Locale d'Écobuage) taldearen zabaltzea beharrezkoa iduritzen zauku. Horren osatzeko, su emaitearen inguruan diren gaiak (materiala, elkarlaguntza eta su emaita politika) aipatzeko eta antolatzeko urte hastapenean bilkura antolatuko dugu. Talde hau herritar orori eta erabiltzaleeri idekia da.

Udazken huntan obra eta bide berritzeak abiatu dira mendi bide nagusi batuetan. Hala nola Sabio-Arrabit lepo eta ondotik Aberatsune. Proiektu hauek aintzineko Herriko etxeak eta mendiaren erabiltzaile batzuek bultzatu zituzten.



# Eliza / Ondarea

Obrik :

Antioxeko San Julian elizaren arraberritze lanak urtarrilean hasi dira. Bi garaietan eginen dira.

Lehen garaian, presatuenak diren zureria, teilatua (teilak eta lauzak), nabe gaineko eta elizbihotzaren hargintza, zinkeria eta tximistorratza arraberrituko dira.

Bigarren garaian, nabe eta sakristia, berina leihoen ur-sartzeen tratamendua eta sakristiako plastre emokadurak eginen dira.

Arraberritze lan horiek guti gora behera 10 hilabete iraunen dute eta 587 436,03 € gostako dira.

Huna atxikiak izan diren enpresak :

- Hargintza : « Compagnons de Saint Jacques », Baionakoa.
- Zurgintza eta zinkeria : SARL Etcheverria, Luhusokoa, Lan Berry eta SARL Trounday anaiak, Ortzaizekoak.
- Maiasturuntza : Bategin, Baigorrikoa.
- Plastreria : SARL Delannoy, Kanbokoa.
- Tindua : SAS Lorenzi, Paukhoa.
- Tximistorratza : SAS Heurelec, Irisarrikoa.
- Berina leihoak : Franzetti enpresa, Baionakoa.
- Elektrika : Jacky Guiroy enpresa, Arrosakoa.

Arraberritze lan horien lehen partea Akitania Berriko Kultura Ekintzen Zuzendaritzak -DRAC- (152 000€), Akitania Berria Eskualdeak (95 000 €) eta Kontseilu Orokorrak (oraindik zehazteko) laguntzen dituzte.

Bigarren garaiko diru laguntzak ez dira oraindik ezagutuak bainan segurtatuak gira ukamen ditugula.

Ondare fundazioaren laguntzarekin diru eskaintze kanpaina bat abiatu dugu. Emaitza baten egiteko prest diren guziak ongi eterriak dira jakinez emaitzek zergen apaltze bat idekitzen dutela.

Emaitzak egiten ahalko dira edo Ondare Fundazioaren bidez edo Herriko etxera helaraziz.

Zuen uezte?

Zonbat eskualde ditu ezkil dorreak?

## Ezkilaren taupadan proiektua

Proiektu hori Kultura eta Ondarea komisioak eramaiten du. Hunen xedea da ekitaldi kulturalei leku baten egitea herrian, lagunduz arlo horretako iniziatiak. Gainera, espazio bereziak proposatu nahi ditu belaunaldi guzietako Ortzaiztarrak elkartzeko, herriko ondarea eta jakintza desberdinak elgarrekin partekatzeko, herria biziarraziz. Bereziki, herriko ondarearen inguruan ziklo batzuk antolatu nahi ginituzke, gai desberdinak jorratuz. Programa horri “Ondareizula” izena emana dakogu, erran nahi baitu gure helburua dela herritar guziek goza dezagun ondarea, gureganatz eta biziarraziz.

Kuadro horretan, hautatu dugu ondarearen baloratze programaren ziklo baten hastea elizaren inguruan, honek biziko dituen obrak direlarik estakuru. Parada ederra iduritzen zaigu Monumento historikoen lista gehigarrian jarria den edifizio hortaz ikasteko eta elgarrekin solastatzeko. Ziklo hori “Ezkilaren taupadan” deitu dugu. Lehen atala joan den urrian egin zen, mintzaldi batekin elizaren historiaz bainan ere eraikuntzaren egituraz eta heldu diren obretaz.

Zenbait gauza ikasi ginituen ere bai elizaren barnean diren arte obra batzuetaz. Egun horretan elizara hurbildu ziren herritar eta kanpotik jin interesatuek Jean-Baptiste Orpustan, Michel Berger arkitektoa, Isabelle Joly aurtengo obretaz arduratzen den arkitektoa eta Mano Curutcharry, Antikitate eta Arte objektuen kontserbadore ordezkaria Baionako eskualdearentzat, entzuteko parada ukan zuten. Mintzaldi horri esker, herritar bakotxak elizaren sekretu zenbait ikasi ditu, monumento hori desberdinki so egiten ikasteko.

Bertzalde, ziklo hori segitu nahi ginuke xantierraren bisita batzuk antolatz herriko haurrendako “Ospitalea”, ondarearen hezkuntza zentroarekin. Horren gogoetatzen ari gira eta testuinguruak ahalbidetzen baldin badu, gauzatuko dugu ondoko hilabeteetan. Bururatzeko, filma parte-hartzaile proiektu bat eraman nahi ginuke, herritar zenbaitek beste batzuk elgarrizketatuz beren lekukotasuna eman dezaten eliaz. Joan den azaroan abiatu beharra zen proiektu hori. Ezin izan dugu abiatu bainan espero dugu ahal bezain fite hastea. Bilkura publiko bat antolatua izanen da horren esplikatzeko laster.



## Ba ote dákizu ?

Ezkil ttipi hori elizako dorrean atxemana izan da. “1767” data markatua du gainean. Aro horretako ezkilak arraroak dira, frantses iraultza denboran gehienetan urtzen zirelako. Hunek historia zeharkatu du gu arte. Oroitzentz ote zira hori ikusirik ?



# Helbideratzea

Entzun dukezuen bezala, helbideratze lana egiten ari gira Ortzaizen, hau da herrian erabiliko den helbide sistema berria, bide bakotxari izen bat emanez eta etxe bakotxari zenbaki bat. Hala ere, etxearen izena agertuko da beti helbideetan, hau delako Euskal Herrian berezitasun bat Euskal hirigune elkargoak deliberatu duena atxikitzea herrietako ondare eta erabilpen sozial baten begiratzeko. Horri esker, larrialdi zerbitzuei lokalizazio lana errexten zaie bainan ere orokorki, etxera hurbiltzen diren zerbitzu guzieri. Gainera, internet eskuratzeko fibra optikoaren sistema laster jinen da herrira eta horren plantan ezartzeko, beharrezko da helbideratze lan horren bururatzea.

Lan talde bat muntatu dugu hautetsi eta herritar zenbaitez osatua, duela hilabete zonbait, izendatze lan horren eramaiteko Euskal Hirigune elkargoaren laguntzarekin. Gure lana izan da bide bakotxari izen baten emaitea. Hautatu dugu ahal zelarik bederen, herriko leku izen desberdinengagiratzeko eta transmisio baten segurtatzeko ondoko belaunaldie, ahal bezainbat lekuengos izenen agerraztea bide izenetan, toponimia erabiliz, azken etxearen izena ezartzeko orde. Horretarako, leku edo gune bakotxeko herritarrekin mintzatu gira beren usaietako lekuengos izenen agerrazteko, denentzat helbide berri horien erabilpena naturalena izan dadin eta erreksi guregana dezagun. Gisa horretara, importantea iduritzen zitzagun euskaraz agerraztea helbide hori, leku horiek euskarazko izenak dituztelako eta lekuengos identitatearen markatzeko, belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena.

Helbide berri horiek 2021 urte hastapenean presentatuak izanen zaizkizue etxe bakotxeen. Ondotik, panoak ezarriak izanen dira bideetan eta etxe aitzinetan, jabe bakotxarekin adostu ondoan nun agerrazti. Helbide berri horiek dituzue erabiliko beraz hilabete zenbaiten buruan eta zerbitzu publiko gehienek eskuratuko dituzte gureganik, ez duzue eguneratzerik egin beharko.

Kasu guzietan, xehetasun gehiago emana izanen zaizue lan horri buruz bilkura publiko baten karira, baita zuen etxeetan pasatuko diren auzoetako ordezkarientzengana. Parada ukanen duzue horretaz solastatzeko oraino ere.

## Zuen uste? :

Nola deituko da Gaztenarenetik Unhaiara joaiten den bidea?

# Urbanismoa: Permisak

## Eraikitzenko permisak :

GALDEGILE	ERAIKUNTA MOTA
COILLE ANTHONY	Aitzinalde aldaketa
GIORGINI DAVID, CONNEZ CÉLINE	Etxe baten eraikuntza
ORONOS XAVIE	Etxe baten eraikuntza
BEAUVAL CHRISTIAN	Teilaratu azpiaren berritzea
JORAJURIA RAMUNTXO	Etxearen handitzea
KAMMENTHALER ERIC	Hangar baten eraikuntza
ETCHEGARAY JULIEN	Sabai baten berritze
OXANDABURU ANDRÉ	Materiala aterpetzeko eraikuntza
EARL MENDIA	Bazka aterpetzeko eraikuntza idekia
AGUERRE JEAN-MICHEL	Garaja baten eraikuntza etxea handituz
GOICOECHEA MAITENA	Etxe baten eraikuntza
GALLO LAURENT	Etxe baten eraikuntza
OXOBY PHILIPPE	Garaja baten eraikuntza
LEKUMBERRY XANTXO	Borda baten berritzea
SAS ASTIGARAGE CINCUNEGUI	Hangar baten eta bulegoen handitzea
OXOTEGUY ADRIEN	Aitzinalde aldaketa
ETCHEGARAY ERIC	Etxe baten eraikuntza
LEGARTO FLORENCE	Etxe eta garaja eraikuntza

*Urbanismo agiria :*

# Lotizamendua

GALDEGILE	PROIEKTUA
SORHAITS DUVERDIER ANNE	Eraikitzen ahal den lur baten zatitza bitan
ORONOS XAVIER	Etxe baten eraikitzeko baimena
KAMMENTHALER ERIC	Etxe baten eta laborantza hangar baten eraikitzeko baimena
IRIBARREN MIXEL	Etxe baten eraikitzeko baimena
LEGARTO JEAN ANDRÉ	Etxe baten eraikitzeko baimena
ETCHEGARAY JEAN-BERNARD	Etxe baten eraikitzeko baimena
ETCHEGARAY JEAN-BERNARD	Etxe baten eraikitzeko baimena

Lekuko empresa batek Xerrenda lotizamenduko lur batzuentzat bere interesa jakinarazi daku. Proposamen horren harira eta lotizamenduari bizi baten emaiteko xedearekin, araudi eta planoaren moldatze bat egin dugu.

Egokitzeko baimena ukан dugu. Hala nola lotizamenduko zati batzu (5.zatitik 8-era) kendu ditugu. Zati horiek ofiziale-gune zati bakar bat osatzen dute eta sartzea departamentalatik izanen da. Enpresa horrek eraikitzeko baimena galdegina du.

Bestalde, lehen zatia eta hirugarrena jadanik atxikiak dira. Lehen zatiarentzat jabe izanen direnek eraikitzeko baimena ukana dute. Zati hori urte hastapenean saldua izanen da. Jakin ezazue, 2 zati oraino libre direla, prezio interesgarri batean. Lehentasuna herritarri emana izanen zaie. Zuen galderak herriko etxera gutunetxelaz itzazue.

*Egokitzeko permisa :*

GALDEGILE	PROIEKTUA
ORTZAIZEKO HERRIA	Xerrenda lotizamenduaren perimetroaren aldaketa : 5. eta 8. zatien kentzea



# Bide programa

Kontseilu Orokorraren laguntzarekin, Herriko etxeak 2020 urteko bideen obren gauzatzeko merkatu publikoa abiatu du. COLAS eta CTN enpresek arrapostu eman dute merkatu publiko huni eta beren eskaintza onartua izan da, 66 368 € (HT). Obrek 2020 urte bukaeran hasi behar zuten bainan urtarriko lehen bi asteetara pusatuak izan dira.

“Enrobé” delako beltz baten egitea galdegina zen merkatu hantan, 3 leku desberdinan :

- 75 metro luzetasunean BIDEAINA etxealdeko bidean.
- 3 zatitan moztutako 2100 metro luzetasunean LAXTERRENEA etxealdeko bidean.
- 500 metro luzetasunean MENDIA etxealdeko bidean.

Herriko etxeak galdeginik, Kontseilu Orokorrak herriko bideak ikertu ditu. Horri esker 3 urtetako bideen obra programa bat proposatu daukute, bide bakotxaren zailtasuner egokituz. Azkarki kraskatu bideendako, “enrobeaz” gain “grave émulsion + enduit bicouche”- ez emokatzea kontseilatzen daukute.

Metodo berri hau 2021 urteko bide obren programean izanen da. Arazo tekniko batzuengatik, obra horiek udan egin beharko dira. Hala nola merkatu publiko berri hau urte hastapenean abiatuko dugu.

## Zuen usted ?

Zonbat metro herriko bide dira Ortzaizen?

# Garapen iraunkorra

Taldea bildu da Ausartu programaren proposamenak berriz lantzeko eta epe laburrean egingarriak direnak identifikatzeko. BIZI-ren 2020ko ituna eredutzat hartzen dugu. Aipatuak izan diren arloak hauek dira :

## Energia :

- tokiko energia berde hornitzaleetaz hurbildu
- eraikin publikoen energia kontsumoa apaldu
- tokian berean energia ekoizteko maneretaz gogoetatu

## Eguneroko bizitza :

- herriko gune naturalak baloratu
- piknika guneak hobetu – mahainak gehitu
- baratze partekatuei pentsatu

## Zerbitzuak :

- autopartekatze guneak sortu
- herriko biziguneak elgarri lotu
- kantinan tokiko ekoizpenak lehenetsi

## Inguramena :

- garbiketak antolatu erreketan eta han hemenka ikusten diren zikintegietan
- enderak ideki eta entretenitu
- paisaien itxurari pentsatu (hesi naturalak, arbolak pentzeetan)

## Aurten eraman diren urratsak :

- Lakako eta Zubialdeko parkeen garbiketa
- metanizazioa egiten duen etxalde baten bisita
- ENARGIA eta IENER-ekin harremanetan jartzea herriko eraikuntzak horien energiarekin kurriarazteko
- auzo herriekin gogoeta bat abiatzea kantinako bazkarietan tokiko ekoizpenak proposatzeko

Orokorki, hemendik goiti eramanen den edozein proiektu pentsatua izanen da bere garapena iraunkorra eta bizigarria izan dadin. Gomitatua izanen zira, nahi baduzu, gogoeta eta ekintzetan parte hartzera.

# Apartamenduak

Herriak 21 apartamendu, etxe bat eta 3 lokala profesional ditu.

- Florentzenea berria: 8 apartamendu
- Florentzenea: 5 apartamendu eta 3 lokala profesional
- Mendilahartsua: etxe bat
- Apezetxea: 4 apartamendu
- Herriko etxea: 2 apartamendu
- Posta zaharra: apartamendu 1
- Katxerenea: apartamendu 1

Gaur, bi apartamendu ez dira erabilgarriak batez ere Florentzenean den apartamendu bat eta Katxerenekoa (posta agentziaren gainean dena).

Azken hau, 2021ean berritzea deliberatu dugu.

Florentzenean baita Posta zaharraren eta Herriko etxearen gainean diren apartamenduen berritzearen egingarritasunari pentsatzen ari gira zaharkituak baitira.

# Herriko Zerbitzu Soziala

Herriko Zerbitzu Sozialari esker (HZS), Herriko Etxeak elkartasun sare bat eta herritarren laguntza antolatzen ahal ditu (dozierren muntatzeko, paperrak betetzeko, elbarrituen edo noiz behinka beharrean den edozeinen laguntzeko). Herriko Zerbitzu Soziala elkartea bezala ibiltzen da lehendakari batekin (auzapeza) eta 8 kideekin : 4 herritar (Marie-Louise Idieder, Carmen Argain Echaide, Nanou Joseph, Henry Jauriberry) eta 4 kontseilaria (Claudine Idiart, Odile Falxa, Elodie Perusansena eta Jef Mateo). 2020an ere, laguntza bat eman zaie elbarrituei eta sortu berriei. Eta urte hondarreko opari bat eskaini zaie 80 urtez goitiko Ortzaiztarrei.

HZS-ak proposamen berriak egin nahi ditu herritarrei (BAFA diploma prestatzeko diru laguntza bat, ateraldiak eta kultur arloko ekitaldiak xaharendako...), elbarrituak eta autonomia galtzen ari direnak bereziki kondutan hartuz.

Azken hilabete hauetan, konfinamendua edo erdi konfinamendua dela medio, bakartasunak gero eta azkarrago hunkitzen ditu ahul eta arriskuan sendi diren pertsonak. Holako egoeran bazira, ez duda, herriko etxera dei ezazu, HZS-eko kide batekin harremanetan jarriko zaitugu.

## *Herritarrei proposatzen zaizkien beste animazio batzu*

Atxiki tailerrak proposatuak dira Ortzaizeko herrian eta Garazi-Baigorriko kantonamenduan. Urririk dira, horien helburua jendeen laguntzea da beren autonomia (fisikoa, koñitiboa edo soziala) ahal bezain luzaz atzik dezaten. Etxean bizi diren 60 urtez goitiko Ortzaiztarrei zuzenduak dira. Aline Etcheverry koordinatzaile psikomotrizilaria animatzen ditu : memoria, oreka, nola saihestu eroriko bat, psikomotrizitatea, bizkortasuna, zer nola jan osagarrian izaiteko, gimnastika, proposatuz. Tailer horiek iragaiten dira : astearte goizetan, 10 terditarik eguerdi arte eta ortzirale arratsaldetan, 3terditarik 5ak arte.

Egoera sanitarioak ez baititu mementoan elgarretaratzeak baimentzen, 2020ko urriaz geroztik Atxiki-ko taldeak etxeetan pasatzea proposatzen du, harreman sozialaren mantentzeko... Espero du tailer kolektiboak urtarrilean berriz hasten ahalko dituela, egoera sanitarioaren arabera bixtan dena. Bere zenbakia : 07 85 46 07 92.

**Zuen usted ?**

Nor dira Ortzaizeko emazte eta gizon xaharrenak?

# Artxibo / Liburutegi / Ludoteka

## Liburutegia :

Ortzaizeko liburutegiari buruz gogoeta bat eraman dugu antolaketa berri baten pentsatzeko. Hala nola, orain arte departamendutik eskuratzen ziren liburuak 4 hilabetero, eskola publikoko haurrek hartzen zitzutenak, bainan ere liburutegira joan nahi zuen herritarak. Sistema berarekin, deliberatu dugu zerbitzu horren zabaltzea hiru eskolei, denek eskura ditzaten liburuak. 70 bat haur jiten da horrela erregularki liburuuen hautatzen eta etxera eramaiten dituzte irakurketarako. Jakinez hiru eskolak elebidunak direla, ez badira euskaraz soilik ari, gure xedea izan da ere euskarazko liburuuen proposatzea ahal bezainbat. Departamenduko liburutegiarekin hitz egin dugu beraz, eta adostu 4 hilabetero ekarriko dizkigutenean liburuuen erdia gutti gora behera euskaraz izanen dela.

Oroitarazten dizuegu Herriko etxearen kokatua den liburutegia astearte arratsaldetan idekia dela. Eskolak pasatu ondoan, herritar orori idekia da 4terditarik 5terdiak arte, haurrentzat bainan ere helduentzat. Liburutegi hori ibilarazten laguntzen gaituzte herritar zonbaitek, bereziki denek ezagutzen duzuen Anniek, bainan ere berriki laguntza eskaini daukuten, Claudine, Ghislaine eta Gaxuxak. Horiek dauzute oraitik goiti harrera eginen eta liburuuen hautatzeko parada emanen.

Bestalde, postako liburutegi espazioaren berregituratze proiektua hasia dugu. Gure helburua da liburu gehiagoren eskaintza leku horretan eta horien sailkatzea, erabilpena errexteko herritarrendako. Helduendako departamendutik heldu zaizkigun liburuak, momentuko Herriko etxearen eskuratzen ahal dituzuenak, espazio horretan ezarriko ditugu ere bai. Proiektua ondoko asteetan eginen da, etxe egonaldiak behartu baigaitu berantzera. Laster ukanen duzue espazio berri horren deskubritzeko parada, posta idekia den egun beretan, asteartetik larunbatera, goizetan, 9etatik eguerdira. Anartean, liburuak eskuratzen ahal dituzue 2 lekuetara hurbilduz : Herriko etxera departamendukoak diren liburuentzat baita postara Ortzaiztarrek eskaini liburuentzat. Zerbitzu hori eskainia zaizue kitorik eta uste dugu horren biziarrak herriaren biziaren parte dela, importantea iduritzen zaigu beraz horren baloratzea eta garatzea.

## Artxiboak :

Herriko artxiboei begira, departamendutik jinarazi dugu artxibista bat Ortzaizeko dokumento historikoak egoera orokorraren aztertzeko. Egun oso bat pasatu ondotik dokumentuen begiratzen eta ikertzen, artxibistak txosten bat helarazi digu komentatzu Ortzaizeko artxiboei fondo aberatsa osatzen zutela aro desberdinako dokumentuekin, zaharrenak iraultza aitzinekoak direlarik. Oraino luzaz atxikitzea baita horien erabilpenaren errexteko gerora, gogoeta bat eramaiten ari gira kontseiluan sailkapen lan baten egiteko. Horren berri emanen dizuegu egin bezain laster. Bertzalde, orain arte egiten zen bezala, registro zaharren begiratze lanak segitzen du, bi registro arraberritzu urtero.

## Zuen uestez ?

Zoin hamarkadakoa da herrian dugun egoera zibilaren registro dokumentu zaharrena?

# Eskolak

Hiru eskola dira Ortzaizen : 65 haur, eskola publikoan, 29 haur, Jondoni Mixel eskola pribatuan eta 87 haur, Ikastolan.

Irailetik, 2 aldaketa izan dira eskola publikoan. Marie-Dominique, erakasleen laguntzailea, denbora osoz ari da. Erakasleak laguntzen ditu 27 haurren harrerari erantzuteko eta animazioen segurtatzeko. Hemendik aintzina, Germainek, eskolaren garbiketa egunero egiten du.

Eskolaldi inguruko harrera idekia da 7terditarik 9ak arte eta arratsaldetan, 4ak eta laurdenetarik 6terdiak arte. Irailetik, harreraren hobetzeko, Evelyn Germainekin ari da goizetan eta Naxhijerekin arratsetan. CAF egiturak galdeginik, prezioen aldaketa bat izan da « PSO » diru laguntzaren ukaiteko. Orain, harreraren prezioa burasoen irabazien arabera kalkulatua da.

	QF < 750			750 < QF < 1200			QF > 1200		
	Haur 1	2 haur	3 haur	Haur 1	2 haur	3 haur	Haur 1	2 haur	3 haur
Hilabeteko harpidetza GOIZA	5	8	9	6	9	12	8	12	15
Hilabeteko harpidetza ARRATSALDEA	5	8	9	6	9	12	8	12	15
Hilabeteko harpidetza GOIZ & ARRATSALDE	7	11	14	10	15	18	15	20	24
Noiztenka	1	1.5	2	1.5	2	2.5	2	2.5	3

Zuen haurrak berantarekin errekuperatzen badituzue, 2 euro gehiago fakturatua izanen zauzkizue.

Suhari janari prestatazale enpresak ditu bazkariak ekartzen kantinara. Egunero, Naxhijek 130 bazkari xerbitxatzen ditu. Marie-Dominique eta Germainek, elebidunak izanki, bazkari denbora guzia eskola publikoko haurrekin pasatzen dute. Haur guziak joan eta, Germainek kantinaren garbiketa egiten du. Ortzaizeko haur guziek, ber prezioaren ukaiteko xedearrekin (3€50), herriko etxeak 1€ pagatzen du Ortzaizen jaten duten 28 haurrentzat eta 2€ Arrosan jaten duten haurrentzat.

## Ortzaizeko eskola publikoa :

Ortzaizeko eskola publikoa eta Arrosako eskola publikoa elgarretaratu dira RPI baten bidez 2002ko irailean. Bi herri horietako haurrak errezebitzen dituzte beren eskoletan. Bi eskolen artean ibiltzeko, autobus zerbitzu bat plantan emana da eta herri bakotxak bere haurzaindegia ere proposatzen du.

Aurten, 65 ikasle errezebituak dira bi eskola horietan , ttipi ttipietatik hasiz CM2 maila arte. Ttipienak, CE1 maila arte, Ortzaizeko eskolan dira aldiz CE2 mailatik CM2 mailarainokoak Arrosako eskolan. Eskola elebidunak dira, euskara ikasten ahal da ama eskolan baita lehen mailan ere.

Ortzaizeko eskolan 2 erakasle dira: 1 frantsesetan eta beste 1 euskaraz, horrez gain ama eskolako laguntzaile euskaldun bat bada eta AVS bat .

Haur ttipien beharreri erantzuteko eta beren erritmoa errespetatzeko, ama eskolako gela espazioka antolatua da. Haurrak, beren gustura espazio desberdinatetan ibiltzen dira gauzen deskubritzeko, eskustatzeko, eraikitzea eta denbora berean autonomia lantzea. Numerikoa ere eskolan sartua da : haurrek tauleta erabiltzen ahal dituzte, ordinagailuak, badute ere VPI interaktibo bat.

Kultur arloan, eskolako burasoen laguntzarekin, urtean zehar ikusgarriak proposatua zaizkiete bai euskaraz eta bai frantsesetan.

Haurrak, herriko liburutegian ibiltzen dira , astean behin joanez eta liburu bat hartuz etxerat eramaiteko. Eskolak, bere besta ttipiak antolatzen ditu eguberriz eta urte ondarra ospatzeko.

Aurten urte zaila da denentzat, agian 2021ean proiektuak bururaino eremaiten ahalko ditugu.



## *Jondoni Mixel eskola pribatua :*

Jondoni Mixel eskola pribatuau, 30 bat ikasle biltzen dira maila ttipienetik CM2 maila arte, astelehen, astearte, ortzegun, eta ortziraletan 8ak eta 40etik 4ak eta 40 arte.

Ama-eskolan murgiltze sistema proposatzen dugu baita ere Montessori pedagogia.

Joan den urtean, proiektu desberdin batzu eraman ditugu : garai batez musikari batekin eguberriko kontzertu bat antolatu dugu. Egun horretan, Bizar Xurik gastatu ditu haurrak baita ere erakasleak.

Konfinamendua hasi baino lehen, zirku proiektu bat hasi genuen, maleruski gelditu duguna.

Espero dugu, aurten segitzen ahalko dugula, gure lana erakusteko eskolako bestaren egunean.

Otsailean, eskolako ate idekiak antolatu genituen familiak gomittatzeko, ikus dezaten nola egiten dugun lan. Haurrek antolatu zitzuten tailer desberdinak : diktaketa, matematikak, kooperazio jokoak eta sukaldetza !

Denek elgarrekin, jateko gauza gozoak prestatu genituen, aperitifa baten inguruan jan ditugunak.

Nahi baditzue gure eskolako berriak ukan, segitzen ahal duzue gure Facebook orrialdea (Ecole Ossès Saint Michel) .

Gure ezagutza egiteko, zatozte gustian gure eskolaren ikustera !



## *Ortzaizeko ikastola :*

1985ean sortua, Ortzaizeko ikastola elkarteak 87 ikasle errezebitzen ditu aurten, Ortzaize, Arrosa, Bidarrai, Irisarri, Suhuskune eta Iholditik jinak.

Ortzaizeko ikastola Hezkunde Nazionaleko kontratupean den eskola bat da eta Seaskaren partaide da.

Murgiltze sisteman lanean ari gira eta Euskara da ikastolako mintzairia.

CE1 mailetik goiti, frantsesa ikaslearen ingurumenean sartzen da. Elkarlaguntza ere bultzatzen da.



### *Aitamen implikazioa :*

Ortzaizeko ikastolan izen emaiteak erran nahi du burasoek elkartearren bizian parte hartu behar dutela : burasoen bilkuretan, bulegoan, komisio desberdinatan, diruztatzeko egiten diren ekitaldi desberdinatan, baita ikastolako garbiketan.

### *Aurtengo animazioak :*

Nahiz eta urte berezia izan, Ortzaizeko ikastolak hainbat ekimen antolatu ahal izan ditu : Libertimenduko bazkaria Irisarrin, pizza gaua, Lupulun talo gaualdiak, eta xanpain saltzea.

Atxikitze data : 2021eko martxoaren 6an , Ortzaizeko ikastolako ate idekitzeak.

### *Pedagogia :*

Helburu garrantzisuenetariko bat, egunerokoan, euskararen erabilera bultzatzea, aberastea da.

Ikasgeletan, ama-ikastolan eta 2. zikloan batez ere Montessori materiala erabiltzen da ; ildo beretik segitzen da 3. zikloa:

- tailerrak plantan ezartzen dira ahal bezainbat nozioak manipulatz, lantzeko.
  - lanerako jarrera autonomoa bultzatua da lan indibiduala eskainiz hizkuntzan eta matematiketan: horrela ikasleak ikasten du bere lana aitzinatzen bere erritmoan eta konzeptuak jabetzen.

Elgar bizitza ama-ikastolatik lantzen da. Gelan astean behin beren gora beherak aipatzen dituzte. Horrez gain, lehen mailako haurrek epe bakoitzean, biltzar batean parte hartzen dute, hor parada bat eskaintzen zaie gelan haietan ez diren haurrekin dituzten arazoen aipatzeko eta aterabideak atxemaiteko.

Epean behin saio berezia antolatzen da, mailak nahasirik, elgar hobeki ezagutzeko eta euskaraz zerbait partekatzeko.

Elgar bizitzarekin zerikusi handia duena ere, gorputz heziketa, jolasen bidez kooperazioa, bakoitzaren mugak, emozioak... lantzen dira.

## *Urteko proiektua :*

Urtero, proiektu bat lantzen da; aurten, euskal mitologian oinarritzen da: gai horrekin arlo anitz lantzen da: ahozko eta idatzizko adierazpena, artea etabar...

# Elkartek

Herri bat bizi da ere bere elkarteari esker. Hauek herritarrak biltzen dituzte, eta bakotxaren indarrak uztartuz herria higiarazten dute.

Herriko etxean sartu orduko, lan talde edo komisio bat sortu dugu, elkartekoak bakotxaren biziaren hurbileti segitzeko, bainan ere gure sustengua erakusteko, ahal dugun neurrian. Orotarat, hogei bat elkartea ditugu herrian, bakotxak dituela bere helburu eta xedeak, frango sail ezberdinetan.

Badakigu 2020 urte hau arras berezia izan dela elkarteentzat ere. Alabainan, antolatuak izan behar ziren ekitaldi frango trabatuak edo ezeztatuak izan dira. Halere, elkarteeek bizirik diraute eta herriko etxeak urteroko diru-laguntza banaketa gauzatu du.

Aurrekontu nagusian, 60.000€ bozkatu ginituen gure komisioaren biziarrazteko. Orotarat, **50.914,09€** banatu ditugu aurten. Huna beraz nola banatua izan den dirua :

- Eskolatze prezioaren pagatza Arrosako herriari Ortzaiztar ikasleentzat: **4.497,40€**
  - Eskolatze prezioaren pagatza Ortzaizeko eskola pribatuer (San Mixel eta Ikastola): **22.894,08€**
  - Kantinan haurren kudeatzeko lagunzailea diruztatzea eskola pribatuer: **5.640,61€**
  - Kolegioer laguntza eskaintza ateraldientzat (50€ herritar ikasle bakotx): **1.850€**
  - Kirol taldeer laguntza eskaintza (20€ herritar lizenziatu bakotx): **2.300€**
  - Herriko elkarteer laguntzak eskaintza: **10.632€**
  - Kanpoko elkarteer laguntzak eskaintza: **3.100€**

Aitzineko Herriko etxeko taldearen ildo bera segitu dugu kolegioeri 50€-ko diru-laguntza eskainiz herritar ikasle bakotx, ateraldi ezberdinen diruztatzeko. Orotarat 37 ortzaiztar kolegioan dira.

Ildo bera ere 20€-ko diru-laguntza bat eskainiz kirol talde guzieri, herritar lizentziatu bakotx. Orotarat, 115 kirol lizentzia badira herrian.

Kanpoko elkarteei egin diru-laguntzeta aldiak, aldaketa bat markatu nahi izan dugu, sustengu berezi bat erakutsiz euskarazko hedabideer (Irulegiko irratia, Herria...), euskararen alde ari diren elkarteei (AEK, Ikas Bi, Euskal Haziak, Seaska) bainan ere lurrealde hau zaintzen eta biziarazten duten eragileer (Lurzaindia, EHLG...).

Horrezgain, besteak beste, Ortaize eta Baigorriko su-hiltzaileen elkartea, Sokorri katolikoak, Etorbide elkartea eta Bihotzko ostatuek ere diru-laguntza bat eskuratu dute. Orotarat kanpoko hemezortzi elkartea lagundua izan dira.

Herriko hamar elkarte ere diruztatuak izan dira, usaiako diru laguntzetatik abiatuz eta aurten gauzatu beharrak ziren projektuen arabera. Xehetasun guziak atxemanen dituzue herriko etxearen.

Diru-laguntzen banaketa horren hobetzeko, elkarteen lan taldeak erabaki du 2021 urteko, diru-laguntza txosten baten plantan emaitea. Elkarte bakotxak urte hastapenean diru-laguntza eskaera dozier bat eskuratuko du eta galdea itzuli beharko du Herriko etxera, iakinaziz zein projektu gauzatu nahi luken urtean zehar.

2020 urtean, diru-banaketetaz harat, elkarteek egin dauzkuten galde batzueri erantzun deegu. Besteak beste, Uxaroko zango baloi zelaia berdindua eta berriz ereina izan da eta Arranoak zango-baloi taldearen aldageletako dutxak berrituak izan dira.

Azkenik, deliberatu dugu urte hondarreko herriko liburuxkan elkarreeritzea merexi duten lekuaren eskaintza. Elkarte bakotxari artikulu bat galdegin dakogu, urtearen bildumaren egiteko, bainan ere elkartearren ezagutarazteko. Bozkariatzen gira, elkarte guziek, artikulu bat igorri dutelako, eta denak elebidunez. Eskerrak elkarreeta kide guzier zuen engaiamenduaz eta biba zuek !

## *Ortzaizeko ihiztarien elkartea :*

Ortzaizen ihizia elkartek kudeatzen du, "Verdeille" deitu legearen arabera sortua den elkartea. 90 kidez osatua da; horietan 70 Ortzaitarrak dira eta 20 auzo herriekin heldu direnak, nahiz hauetan gehienek lotura badutenean herritar familia batekin. Urte oroz ihizi sasoinak irailaren lehenetik martxo hondarraino irauten du. 2019-2020ko emaitzak hauek izan dira: 41 basurde, 15 orkatz (ahuntz basa) eta 29 kalte-egile (azeri, fuña eta beste). Bestalde ihiztatuak dira ere erbi, urtzo eta pekada. Covid-19 izurritearengatik, joan den martxoan ihizia gelditu behar izan da, sasoina bururatu aitzin. Larrazken huntasere, berriz Covid-19arengatik ihizia debekatua izan da zonbait astez salbu ihizi haundiak (basurde eta orkatz) kalteak egiteagatik. Ahalaz, kalteak diren lekuetan, ibiltzen dira basurde ihiztariak. Laborariekin basurdeek egin kalteak jakinarazten badituzte, behar dituzte ere seinalatu oilategietan edo ahate hazkuntzetan eginak diren kalteak.

Elkartearren kudeatzaileak dira : Xavier Guiroy, lehendakari; Alain Dronde, lehendakari orde; Dominique Videgain, diruzain; Pantxo Errea, idazkari; Xabi Idieder eta Rémi Aizpurua, administratzaile.

Ihiztarien elkartek eskertzen du Herriko etxea ekartzen duen diru laguntzarentzat.



## *« DENENTZAT » petanka elkartea :*

« Denentzat » petanka elkartea 2017an sortua da. Hogeita hamar bazkide gaude. Asteartir arratsalde guziez elgarretarratzen gira, herri barneko petanka zelaian. Elkarteak 9 petanka-zelai ditu (2019ko 2 berri). Urte guziz 3 lehiaketa antolatzen dira, auzo herrietako partaideekin. Elkarteak eskaintzen ditu ekipamendua -zirkuluak, markagailuak, petanka bolak ... eta jokolariak prest dira zuri ongi etorriaren egiteko eta zure aitzinaratzen laguntzeko.

Asteartetan gurekin dira, lagun arte goxoa, partaidetasuna eta umore ona, kafea eta bixkotxen laguntzarekin. Urtean behin, bazkari bat antolatzen dugu herriko ostattu batean. 2020an, gure ibilmoldea murritzua izan da itsuski. Esperantza dugu urte berria Ortzaiztar kide berriekin hastea, eta elgarrekin proiektu berrien gogoetatzea, guk ere parte har dezagun herriko bizian eta dinamikan. Edozoin izanik zure adina edo zure maila, ongi etorria zuri gure elkartera. Ausartu zaitez !

Kontaktuak : Gil 06 14 77 34 98 / Mikel 06 79 53 52 01



## *Gerlari ohien elkartea :*

Bizitzen ari garen urte zaila oso urria izan da.

Hala ere, lagundu ahal izan dugu, Arrosa eta Ortzaizeko banderekin batera, André IRIGOYEN, Afrika iparraldeko beteranoa, 2020ko ekainaren 29an hil zena; eta memoriaren betebeharra errespetatu dut, 2020ko azaroaren 11n, ekitaldi mugatu baten bidez. Egun hortan, Ortzaizeko udalerriak eskainitako koroa jarri dugu eta gatazka guztietako hildakoen deia egin, barne Malin erori ziren gure 20 kide gazteak.

Ez naiz ekitaldi hauetan bakarrik geldituko. Izañ ere, beteranoak pixka bat harrituta sentitzen dira, inoiz armarik eraman ez duten eta, beraz, bizitza arriskuan jarri ez duten batzuek, herrialdea jotzen ari den pandemia dela eta gerrari buruz hitz egin dezaketela entzutean. Arrazoia mantentzen jakin beharko genuke.

Gerrari buruz hitz egin nahi badugu, gure adinekoei iritzia eskatuko behar genieke, Afrikako iparraldean «ordena mantentzeko» borrokatu zireneri, 25.000 hildako eta ehunka mila trauma psikologikoren truke.

Eta, beraz, utz diezaio gun ustezko hauskortasuna lantzeari.

«Peio» Bouquet Koronela.



## *Arranoak F.C. :*

Arranoak F.C 1981-ean sortu den Ortzaizeko zangobaloitik taldea da. Hainbat urtez gazte eta heldu taldeek Ortzaize eta Irisarriko zelaiak animatu ondotik, gaur egun heldu klub bat baizik ez da. Ortzaize eta inguruetako 40 bat lizenziatu biltzen ditu.

Bi taldek departamenduko txapelketa eta kopa ezberdinan parte hartzen dute : lehen taldeak 11-nakako konpetizioetan eta bigarrenak 7-nakakoetan. Neska talde bat ere sortu da duela bi urte. Ez du oraindik txapelketa ofizialean parte hartzen. Lagunarteko partiduak jokatzen ditu inguruetako taldeen kontra.

Zangobaloian jostatzeko eta momentu goxoen pasatzeko plazerra baduzu hurbildu Arranoak taldeko edonorrengana ! Eta jakin segitzaileen beharra dugula ere bai, beraz ez duda, etorri zuen taldearen sustengatzerat igandetan, Uxaroko zelaira !

Klubak herriaren animazio eta erakargarritasunaren eragile izan nahi du. Alde batetik talde kirol bat proposatuz jokolari ta segitzaileak parteearaziz, ta bestalde zonbait animazio proposatuz. Hain zuzen, 2021-ean klubaren 40. urtea izanen da. Egoerak baimentzen badu, animazio ezberdinak proposatuak izanen dira urtean zehar : mus txapelketa, kantu edo bertsu afari, ...

Bukatzeko nahi ginuke Ortzaizeko herria eskertu urte guzi horietan eman ezinbesteko laguntzarentzat. Esker berezi bat herriko langileari zelaia entretenitzeagatik, ez baiginuke bestela gure tiki-taka joko ospetsua plantan ezartzen ahalko. Azken esker bat beste partaide guzieri izan enpresa edo auzo herri.

Arranoak taldeak urte on eta kirotsu bat desiratzen dizue !!! Goazen Arranoak!



## *Baigura kantuz :*

Duela 14 urte, 2006eko abenduan, JonDoni Jakobe Parropiako hogoita hamar bat kantariet sortu ginuen « Baigura Kantuz » elkartea, hunek kantariak elgarretaratzen zituela Suhuskune, Irisarri, Arrosa eta Ortzaizetik, gizon eta emazte.

Geroztik elgarretaratzen gira astean behin kantuen ikasteko, botz batean edo hiruzpalau botzetan.

Elizako besta nagusiak edertzen ditugu kantu xaharrak kantatuz euskaraz, eta apaintzen kantu berriekin, hala nola Eguberriz, Bazkoz, Mendekostez, Andre dena Mariaz, Omia Sainduz eta beste.

Ipar Eskual Herriko kantarien biltzarretan parte hartzen dugu urte oroz. Gisa berean aurten Sarako elizan bildu beharrak ginen azaroaren 22an, bainan biltzarre hori ez da bururaino antolatu ahal izan Kovida dela medio.

Elizako besta buruetarik bestalde apaintzen ditugu eztei, urte betetze eta beste, gure parropian eta ere parropiatik kanpo.

Kontzertu zonbait emaiten ditugu han hemenka, hauetan kantatzen dugula euskaraz bainan ere frantsesez, rusoz, italianoz eta españolez.

Zonbait urtez Hazparneko « Larrazkena » xahar etxean kantatu dugu Eguberriko meza, xahar eta erien alaitzeko Eguberriko kantu ederrenenkin.

Duela 12 urte nunbaitan abiato ginen Baionako « la Table du Soir » elkartearen sustengatzen, negu bakotx bi aldiz gure gain hartuz eguneko afariaren prestatzea, Baionarat eremaitea eta han xerbitxatzea, urririk, nekezian bizi direneri.

Erran gabe doa giro onian ari izan girela kantuz eta ere lanean, artetan gure adixkidantz finkatzen dugula mahai baten inguruan.

Urteak jin urteak joan gure taldea xahartu da, kantari gazte gutti xaharren ordaintzeko, eta nekeziak senditzen ditugu gure helburuaren segurtatzeko. Azken hiru urte hauetan Baigorriko kantariekin gertatu gira eztei batzuen kantatzeko eta elgarrekin lan egiteko, haien ere gure nekezia berdintsiak baduztelarik.

Azkenik urte hau bortitza izan da denentzat, bai eta ere gure taldearentzat, hara nola urte hau hasi bezain laster gure elgarretaratzeak utzi izan behar ditugu, eta urtea burura ditaike aldi bat bera kantatzeko paradarik gabe.

Goazen aintzina, esperantxarekin, urte berri on desiratzen dutala « Baigura Kantuz » taldeko laguneri eta hitz hunen irakurle guzieri.

## *En-jeux bienveillants :*

«En jeux bienveillants» elkartearen helburua da onbidezko lokarri kontzienten sortzea bakoitzak bere buruari buruz, besteeri buzuz eta inguruneari buruz.

Tailerrak eskaintzen ditu haurren emozioen erregulatzeko. Antolatzen ditu ere formakuntzak helduentzat bortizkeriatik begiratzeko, onbidezko burasotasuna bermatzeko, neurozientzien ekarpene hezkuntzan zer den ezagutarazteko, eta haurreri buruz arta eta laguntza ekartzeko emozioen erregulazioan.

Andere lehendakaria, Monique SWIDZINSKI  
06.88.84.69.82 / moniswid@gmail.com

## *Garbi :*

Garbi elkartea, Ortzaizeko elkarre zaharrenetik bat da, 1955ean Chorhy apezak sortu zuena. Bastimendu desberdinak kondatzen ditu : Jondoni Mixel eskola, seroren etxea, zinema gela baita ere ezker pareta. Publikoari idekiak diren egoitzak dira pilotan hartzeko, edo ikusgarri eta bestak antolatzeko.

2018 arte, Garbi elkarteark antolatzen zuen kermeza, diru sartze nagusi gisa, bastimenduen mantenu lanen egiteko. Geroztik gertakari desberdinak antolatzen ditu : lotoa, bixkotx salmenta edo zakur konkurtsoak sosa biltzeko.



## Gutartean :

«Gutartean» batasunak 60 urtez goiti duten presuneri idekia da eta ehun bat kide biltzen ditu. Denen gutizia da memento goxo batzuen iragaitea eta jendarteko harremanen atxikitzea.

### Zein dira gure zereginak :

- Hilabetero bi aratsaldez, aisialdiak proposatzen ditugu gizarte-joko batzuen inguruan atsalaskari batekin bururatuz. Horiek egiten dira Denen Etxean.
- Bertzalde apairu bazkari batzu noiztenka leku ostatuetan.
- Zikiro besta bat zozketa batekin Denen Etxean eta ere piknika bat guhaurek prestatutik.
- Egun oso bateko ateraldi kulturalak, piaiaik autobusean eginez.
- Oinezkako ibilaldiak herrian barna eta ere ingurueta, egun osoa hartuz edo goizez, ortzegunarekin.
- Informatika laguntza nahi dutenentzat gure idazkari trebatuarekin.

### Berrikuntza bat aurten :

Nanou-k apailatu daku 2021eko egutegia eta «Gutartean» batasuneko kide guzien argazkiak eman ditu zoin bere sortegunean.

Bertzalde herrien arteko adinekoen batasunak bi ateraldi urtero eskaintzen dauzkigu.

Covid-aren kontrako neurriak errespetatuz, gure zerregin guziak geldiarazi ditugu zonbait denborarendako.

Dena den, loturak atxikitzen ditugu kideen artean bakartasunetik ahal bezenbat begiratzeko, bizi dugun garai dorpe huni ihardesteko.

Herriko erretretatu guzieri galdegina zaiote gureganat hurbil daitezen ; eta haien odol berriari esker berrikuntzak asmatzeko esperantzarekin.

«Gutartean» batasunarentzat,  
Andere Lehendakaria,  
Mailuxa Idieder

Kontaktu: Nanou idazkaria : clubgutartean@gmail.com edo 06.81.52.80.60



## J'harmonise mon univers :

Aurélie Parmier terapeuta naiz, haurren emozioetan berezitua.

« Nire unibertsoa ederresten dut » elkardea, 2018ko urtarilean sortua dut. Partekatzeko gogoak nau bultzatu elkarte horren sortzera. Nire jakitatea eta ezagutzak partekatzea, nire haurrekin profesionalki eta pertsonalki esperimentatu ditudan teknika eta ikasketei esker. Hemen liburuak, jokoak, jukutriak aurkituko dituzue, emozioei interesatuz, zuen haurrak hobeki ulertzeko.

Elkarte horren bidez haurraren loratzea nahi dugu.

Helburu hori lortzeko, emozioei loturiko istorioak eta jokoak bereziki asmatuak izan dira. Lehen mailako 5 emozioak aipatzen dituen Antonin eta Hontza Jauna gure istorio arrakastatsua aurki dezakezue. Gero badira beste istorio batzuk, Antonin pertsonaia nagusi gisa harturik. Liburu bakoitzak emozio bat aipatzen du. Tresna guziak familiako tailerrentzat asmatuak dira.

Zure esku daude hemen, dela ezagutuak izateko, dela jarraipen pedagogiko baten egiteko.

[www.jharmoniseonunivers.com](http://www.jharmoniseonunivers.com)

Istorio eta joko horiek denak tresna ludiko batzuk dira, zuen haurrak beren emozioen hobeki kudeatzen eta lasaiago izaten laguntzeko.

### Laster Ortaizen:

- astero familia-kafea
- guraso eta haurrentzat tailerrak «Haurren emozioak»
- janari, lo eta emozioei buruz, haurrentzako, tailerrak Naturopata batekin izanen dira binakako taldeetan.
- «En jeux bienveillants» elkartearrekin, lankidetzan emozioak kudeatzeko.



## Baigura klika :

20 eta 50 urte arteko 30 bat musikari amatur gira, taldeburu boluntario batekin.

Ortzaizeko bestetan, Bestaberrin eta arazoaren 11ko omenaldian jotzen dugu.

Data horien prestatzeko, otsailetik azarorat astean behin elkartzen gira, errepikatzeko eta gure erreperitorioa berritzeko.

Artetan ateraldiak egiten ditugu, kontzertuak antolatzen eta trukaketak Escource-ko Harmoniarekin.

Gure elkartearren bizia aurten gelditu behar izan dugu. 2021ko otsailean berriz hasi behar ginuke, kontestu sanitarioak baimentzen baldin badu, uda huntan kontzertu baten emaiteko xedea baitugu.

